

## **5.- BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK (PUBLIZITATEA)**

Gure aplikazioa ikustera emateko pentsatu dugu publizitatea, gune desberdinetan banatzea.

Alde batetik, aho eta hortzetako higienista ohiak izanda, klinika ezberdinekin kontaktua dugu, eta gure proiektua haiek jendeari helarazteko eskainiko diegu.

Bestalde, punta puntako gai bat sare sozialak direla badakigu, hortaz, bertan publikatzea izan da beste ideietako bat: instagram, facebook, twitter, pinterest...eta beste hainbatetan. Esan beharra dago, publizitate hau android eta apple sistema operatiboetan eskuragai egongo dela.

Azkenik umeetara bideratuta dagoenez, eskoletara eta bertako jantokietan jarriko dugu. Era horretan denak eskuragai izango dute, sare sozialak erabiliz ez izanez gero.

Gainera, ahoz ahokoa oso garrantzitsua da, eta horretan oinarrituko dugu baita gure lana.

